

OILO-IPURDIA JARTZEKO MODUKO IPUINAK

Antton Dueso

Miel Anjel Elustondoren itzulpena

Ilustrazioak: Up!Art

Desclée De Brouwer

AURKIBIDEA

ESPIRITISMO SAIOA

9

BIRZIKLATZEA

15

OHE AZPIAN

25

VUDUA

31

HAZIA

39

ITZALA

49

MAMUAREKIN BERRIKETAN

59

AKELARRE

69

IGARLEA

77

BANPIRO BATEN ISTORIAO

85

ESPIRITISMO SAIDA



Lau laguneko bilkura, erdi ilunpetan, bi kandela eskasen argipean.

—Hilda baldin bazaude, eta gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, agertu zeure burua nahi duzun moduan –hots egin zien Izaskunek espirituei.

Eta, orduantxe, mahaia dar-dar hasi zen. Hotzikara batek hartu zituen denak, Izaskun izan ezik, espirituei deika egosgogor.

—Badakigu gurekin zaudena. Egin beste seinale bat.

Mahaiak dar-dar egiten zuen artean, pitxer bat erori zen armairutik. Bertan zirtzilatu zen, lurraren kontra jota. Xabierrek negarrari eman zion, umeak baino areago. Elene, antsietateak jo zuen. Naiarak garrasi egin zuen, izu-ikaratan.

Oilo-ipurdia jartzeko moduko ipuinak

—Zer zara, arima bat noraezean? Laguntza behar duzu? —Izaskunek, egosgogor.

Eta, orduan, hormak arraildu ziren, sabaia buru gainera erori zitzaien lau lagunei, eta, ondoren, eraikin osoa lurrak berdindu zuen, dena hauts, harri eta hondakin.

Bertan hil ziren laurak.

Ritcher eskalan 7 graduko indarra iritsi omen zuen lurrikarak.

BIRZIKLATZEA

